



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko apirilaren 29a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa, guztira 549.112 eurokoa, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrianak finantzatzeko (3. or.).
- Foru Lege proiektua, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena (6. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (8. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan. Osasun Batzordeak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Ukrainatik datozen errefuxiatuak hartze aldera Nasuvinsaren bidez egindako jarduketei buruzkoa. María Aranzazu Biurrin Urpegui andreak egin du (11. or.).
- Galdera, AP-15ean joan-etorrian 24 ordu baino lehenago egiten diren bidaien finantzaketari buruzkoa. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetzea (11. or.).
- Galdera, 2019ko eta 2020ko soldata-masaren gehikuntza globalari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketaren gainean Kontuen Ganberak egindako txostenean aipatzen diren kontratuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).

- Galdera, pandemiari aurre egiteko langileen kontratuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketari buruzko txosteneko aurrekontu-partidetan jaso gabeko gastuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Ukrainako egoerara bideratutako dohaintzei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, pandemiari aurre egiteko Nafarroa Gobernuak erositako osasun alorreko materialari, teknologiarri eta Norbera Babesteko Ekipamenduei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, pandemiari aurre egiteko SODENaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuetan aurreikusitako betebeharrak betetze alderako neurriei buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Estudios Melitón SL merkataritza-enpresari instalazioak errentan hartzeari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko diseinatu duen programari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Larraintzako Ikastetxe Publikoko eraikinaren narriadurari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Valle de Odieta SCLri eta Hibridación Termosolar Navarra, SLri Caparrosoko abeltegitzarrerako emandako ingurumen-baimenaren baldintzak ofizioz berrikusteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Kontu-hartze Zerbitzuaren aldetik sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideak bateratzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Emanzipa programaren onuradunen adin-tartea zabaltzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Etxebizitza Partekatuko Belaunaldiarteko Programa abian jartzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, erosteko aukera ematen duen alokairuaren eredia bultzatzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, azken hogeita lau hilabeteetatik gutxienez seitan Nafarroatik kanpo bizi izan diren gazteen itzulerarako plana abian jartzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, etendako kirurgiei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (25. or.).
- Galdera, Foremeko eta Iruñeko apaiztegiko COVID txertatzerako langileei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (26. or.).
- Galdera, premiazko prozeduraren bidez egindako kontratuei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (26. or.).
- Galdera, material sanitarioa eta soziosanitarioa erosteko premiazko kontratuetan bitartekariak egoteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (27. or.).
- Galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua aldaketari, abenduaren 29ko 20/2020 foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotzen den horri buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Metautenen eta Zuñigan eraikitako bizikletendako bideen erabilerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (29. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 2022ko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia (30. or.).
- Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzea (36. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa. Izendapena (37. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa, guztira 549.112 eurokoa, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrianak finantzatzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2022ko apirilaren 13an hartutako Erabakiaren bidez, foru lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, kreditu berezi bat ematekoa, guztira 549.112 eurokoa, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrianak finantzatzeko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrianak finantzatzeko 549.112 euroko kreditu berezi bat emateko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia (10-22/LEY-00004).

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa, guztira 549.112 eurokoa, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrianak finantzatzeko

HITZAURREA

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak txostenak bidali dituzte, adieraziz 2022an ordaindu beharreko zenbait gastutarako ez dagoela aurrekontuko partida egokirik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen paragrafoak ezartzen du ezen, aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin den gasturen bat, eta krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa. Orobat, bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kreditua edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuekin finantzatzen ahal dela, Parlamentuak zuzenketen ondorioz edo foru lege honen xedapenak direla-eta berariaz onetsitako kredituetatik datozenak barne.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2022rako aurrekontuan 549.112 euroko aparteko kreditua ematen da, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuen beharrak finantzatzeko.

Kreditu hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da:

Aurrekontuko partida	ZENBATEKOA
330000 33100 7609 921127 Hitzarmena Hiriberri Artzibarko Kontzejuarekin, kontzeju-etxea birgaitzeko	80.000,00
210001 21300 7609 261673 Lekunberriko zeharbidea	80.000,00
210001 21300 7609 261674 Eskola bidea, Erronkariko Udala	25.000,00
210001 21300 7609 261675 Hitzarmena Castejongo Udalarekin, kaleak asfaltatzeko	35.112,00
210001 21300 7609 261676 Obrak Gamioko Bordako bidean (Ziga), Baztango udal-mugartean	24.000,00
210001 21300 7609 261677 Kaleak asfaltatzea Zozaian, Baztango udal-mugartean	20.000,00
210001 21300 7609 261678 Transferentzia Lizarrako Udalari, Txantona pasabidearen proiektua idazteko	20.000,00
210001 21100 4609 922102 Hitzarmena Zangozako Udalarekin, Elizaren immatrikulazioa dela-eta egindako erreklamazio judizialaren gastuak finantzatzeko	25.000,00
710006 71500 7819 414403 Transferentzia Arga-Aragoiko ureztatzaileen elkarteari (Azkoien), Caracol ibaia lehengoratzeko	130.000,00
720003 72200 4819 413103 Hitzarmena Ekoalde elkartearekin. Ekoizpen sektore ekologikoa egituratzea, hornikuntza zabaltzeko talde handientzako sukaldaritza zerbitzuetara	110.000,00
GUZTIRA	549.112,00

2. artikulua. Aparteko kredituaren finantzaketa.

549.112 euroko aparteko kreditu hori honako partida hauetan erabilgarri dagoen kredituaren kontura finantzatuko da:

Aurrekontuko partida	ZENBATEKOA
210001 21300 7609 261672 (E) Transferentzia Artziko Udalari, Hiriberri Artzibarko kontzeju-etxea birgaitzeko	20.000,00
330000 33100 7609 921113 Lurralde garapen jasangarriko poriektuak litoitzen. Hitzarmena Longida, Artzi, Agoitz eta Orotz-Beteluko udalekin	60.000,00
220002 22100 6010 453206 Sare lokala	105.000,00
220002 22200 7609 261600 Hitzarmena Castejongo Udalarekin, kaleak asfaltatzeko	35.112,00
220002 22200 7609 261602 Obrak Gamioko Bordako bidean (Ziga), Baztango udal-mugartean	24.000,00
220002 22200 7609 261603 Kaleak asfaltatzea Zozaiian, Baztango udal-mugartean	20.000,00
220001 22300 7609 453200 Transferentzia Lizarrako Udalari, Txantona pasabidearen proiektua idazteko	20.000,00
F20000 F2100 4609 111200 (E) Hitzarmena Zangozako Udalarekin, inmatrikulazioaren gaineko erreklamazioetarako	25.000,00
710006 71500 7609 414403 (E) Transferentzia Azkoiengo Udalari, Caracol ibaia lehengoratzeko	130.000,00
710000 71200 4819 412100 (E) Hitzarmena Ekoalde elkartarekin. Ekoizpen sektore ekologikoa egituratzea, hornikuntza zabaltzeko talde handientzako sukaldaritza zerbitzuetara	110.000,00
GUZTIRA	549.112,00

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2022ko apirilaren 13an hartutako Erabakiaren bidez, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri dio Nafarroako Parlatuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrearekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia. (10-22/LEY-00005)

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena

Foru Lege proiektua, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, nabarmen garestitu dira argindarra, gasa eta erregaiak. Hortaz, sektore horietako prezioen igoera handia dela eta, 2022rako Aurrekontu Orokorretan helburu horietako

rako aurreikusitako kredituak ez dira nahikoak. Hala bada, gastu horiei lotutako partidetara kreditu gehigarriak bideratzeko, proposatzen da laugarren paragrafoa gehitzea 5. artikuluan, modu horretan zabalgarritzat jotzeko gastu horietako kode ekonomikoak dauzkaten departamentu guztietako gastu partidak.

Orobat, 5. artikuluan bertan, beste partida zabalgarri bat gehitu behar zaio Ekonomia eta Ogasun Departamentuko partida zabalgarrien zerrendari: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuen jarraipenari lotutako partida bat. Izan ere, plan horretarako funtsak ez daude itxita eta aurreikusten da ekitaldian zehar handitzea, Estatuak transferitu ahala onartzen diren proiektuetarako.

Bestalde, 18/2021 Foru Legearen 14.5 artikuluan ezarri zen 123 milioi eurokoa izanen dela sozietate publikoek ematen dituzten maileguen gehieneko arrisku bizia. Datu hori kalkulatzeko, amaitzen den ekitaldiko abenduaren 31n sozietate publikoek emandako maileguen (zenbatespena) arrisku biziari buruzko datuak jasotzen dira, eta hurrengo ekitaldirako eman beharreko zenbatekoa gehitzen da.

Sozietate publikoek emandako datuetan akats bat zegoen, eta 20 milioi euro kontabilizatu gabe geratu ziren; hortaz, Aurrekontuen Foru Legean ezarritako kopurua ez zetorren bat errealitatearekin.

Horregatik, xedatutakoa aldatu behar da, eta finkatu 2022rako ematen dituzten maileguen gehieneko arrisku bizia 143 milioi eurokoa izanen dela.

Halaber, ikusi da komeni dela langileen arloko xedapen gehigarri bat sartzea; zehazki, koordinazioko operadore laguntzailearen lanpostuari buruzkoa.

Azkenik, Kultura eta Kirol Departamentuko partida baten izena aldatu behar da, akatsa baitago dirulaguntza baten onuradun den entitatean. Hortaz, Foru Legean ageri den "Gaztelu sozietate"aren ordez, "Gaztelu elkarte" a idatziko da, hala jasota baitago haren estatutuetan. Dena den, kodea, zenbatekoa eta xedea bere horretan geratuko dira, Aurrekontuei buruzko Foru Legeari atxikitako aurrekontuko partiden zerrendan ageri diren bezala.

Artikulu bakarra. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzea.

Bat. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 5. artikuluari 4. paragrafoa eranstean zaio. Hona hemen haren testua:

«Orobat zabalgarriak izanen dira, 2022ko ekitaldirako, 2280 eta 2281 kode ekonomikoa duten aurrekontuko partidak, departamentu guztietakoak, eta 2290 kode ekonomikoa duten Hezkuntza Departamentuko partidak».

Bj. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 5. artikulua 2. zenbakiari l) letra eranstean zaio. Hona hemen haren testua:

«l) 114001-13000-6094-931400 partida, «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko proiektuen jarraipena» izenekoa».

Hiru. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14.5 artikulua aldatzen da. Hona hemen haren testua:

«5. Nafarroako Osasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/007 Foru Legearen 82 ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateak ematen dituen maileguen gehieneko arrisku bizia 74.000.000 euro izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 143.000.000 eurokoa izanen da».

Lau. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legeari hogeita hirugarren xedapen gehigarria eranstean zaio. Hona hemen haren testua:

«Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Koordinazioko operadore laguntzailea.

1.- Koordinazioko operadore laguntzaile lanposturako aldi baterako kontrataziorako izangaiei koordinazioko operadore laguntzailearen lanpostuan aritzeko eskaintza eginen zaie nahiz eta administrari lanpostuan aritzeko kontratu bat onar-

tua eduki. Ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin eta haren erakunde autonomoekin administrari gisa aritzeko kontratu bat sinatu duten izangaiek ez dira «ez prest» gisa agertuko koordinazioko operadore laguntzaile lanposturako kontratazio zerrendetan kontratu hura indarrean dagoen bitartean.

2.- Izangai batek koordinazioko operadore laguntzaile gisa aritzeko aldi baterako kontratu bat onartzen badu aldez aurretik uko eginda administrari gisa lan egiteko aldi baterako kontratu indardun bati, horrek ez du eraginik izanen hark administrari lanposturako kontratazio zerrendetan duen egoeran.

3.- Izangai batek uko egiten badio koordinazioko operadore laguntzaile gisa aritzeko aldi baterako kontratu bati indarrean duelako aldi baterako kontratu bat administrari gisa lan egiteko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin eta haren erakunde autonomoekin, horrek ez du eraginik izanen hark koordinazioko operadore laguntzailearen lanposturako kontratazio zerrendetan duen egoeran.

4.- Aurreko apartatueta ezarritakoa eraginkorra izan dadin bete-betean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek hiru hilabeteko epea izanen dute beren tresna informatikoak egokitzeko. Epe hori igarota, xedapen honetan jasotakoak indarra hartuko du».

Bost. A21002 A220 4816 335104 (E) partida, «Hitzarmena Gaztelu sozietatearekin, Amaiurko 500. urteurreneko jarduerak egiteko» deritzona, eta 150.000 euroko zenbatekoa duena, aldatzea. Hona hemen haren testua:

«A21002 A220 4816 335104 (E) partida, «Hitzarmena Gaztelu elkartearekin, Amaiurko 500. urteurreneko jarduerak egiteko» deritzona, eta 150.000 euroko zenbatekoa duena».

Azken xedapenetako lehena. Indarra hartzea

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute (10-22/PRO-00008).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak, maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legearen bidez, Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen aldaketa bat onetsi zuen. Aldaketa horren xedea zen legearen testuari xedapen iragankor bat gehitzea, zeinaren bidez 2022ko maiatzaren 30era arteko etenaldia ezartzen baitzen 1.250 AzLU baino gehiagoko behi-aziendaren abeltzariak ezartzeko edo lehendik zeudenak handitzeko –baldin eta zabalkundearen emaitzaazienda larriko 1.250 unitate baino gehiagoko ustiatzaria izanen bada– abeltzaintzako eskaerak onartu eta baimen berriak emateko.

Neurri horren zioa izan zen beharrezkoa zela foru lege proiektu baten bidez arautzea Nafarroako ustiatzietan animalien osasun-baldintza egoiak bermatzeko beharrezkoak diren tamaina- eta edukiera-betekizunak. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak bere gain hartu zuen konpromiso hori abeltzaintzako ustiatzietan eta horien instalazioek Nafarroako Foru Komunitatean bete behar dituzten baldintza higieniko-sanitarioak, animalien ongizatekoak eta antolamendu zooteknikokoak ezartzen dituen martxoaren 20ko 31/2019 Foru Dekretuaren prestaketan eginiko lanaren ildotik.

Foru lege proiektua 2021eko abenduaren 22an aurkeztu zen Nafarroako Parlamentuan. Hala ere, ez zuen onesten behar adinako babesik lortu, eta Nafarroako Parlamentuak ezetsi egin zuen 2022ko martxoaren 3an.

Azaldutakoa gorabehera, Nafarroako legebiltzar askotan adierazi du baserrietik mahaira eta biodibertsitatearen defentsarako estrategia europarrekin lerrokaturiko eta jasangarritasunean oina-

rritutako garapenaren aldeko abeltzaintza-ereduak sustatzeko borondatea.

Xede horrekin, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa errege-dekretu proiektu bat izapidetzen ari da, zeinaren bidez behitegien oinarritzko antolamendu-arauak ezarri nahi baitira erantzun egokia emateko sektoreak azken urteetan izandako bilakaerari, duen kutsu sozial handiari eta profesionalizazio eta nazioartekotze maila altuari; hori guztia ingurumenaren, biosegurtasunaren eta abereen ongizatearen arloko erronka berriei.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak jendaurrean jarritako errege-dekretu aurreproiektuan behitegien gehienezko ekoizpen-ahalmena 850 abere larrien unitateetan ezartzen da, eta Espainiako Konstituzioaren 149.1. artikuluko 13., 16. eta 23. arauak aipatzen ditu eskumen gisa, arau horiek eskumen eskusiboa esleitzen baitiote Estatuari jarduera ekonomikoaren planifikazio orokorrerako oinarrien eta koordinazioari, osasunaren oinarri eta koordinazio orokorrari eta ingurumena babesteko oinarritzko legediari dago-kienez, hurrenez hurren.

Bestalde, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 50. artikuluko 1. apartatuak Nafarroari eskumen osoa aitortzen dio, foru araubidearen bitartez bereganatu baitu, nekazaritzako eta abeltzaintzako arloetan, ekonomiaren antolamendu orokorraren barruan.

Nafarroak duen eskumen sorta zabala eta Parlamentuak adierazitako borondatea, jasangarritasuna lortzekoa lurraldearen, gizartearen, ekonomiaren, ingurumenaren eta abereen osasunaren garapenaren alorrean, agerian jartzen du lanean jarraitzeko beharra, Nafarroako ustiategietan abereen osasun-baldintza egokiak bermatzeko foru arau bat taxutu eta oneste aldera. Hala, arau horrek estatukoak ezartzen dituen babes-baldintza

gutxieneko eta oinarritzkoak errespetatu beharko ditu, baina babes-neurri gehigarriak ezarri ahalko dira, halakorik justifikatzen duen arrazoirik bada.

Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen 8/2021 Foru Legean ezarritako epea aldatzea, halako moduz non abeltzaintzako ustiategiek izan beharreko edukiera zehaztu bitartean, Nafarroan behi-aziendaren abeltzaintzako 1.250 AzLU-ko edukiera mugari eutsiko baitzaio, behi-aziendaren sektorea antolatzeko baldintzak zaintze aldera.

Hori dela eta, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen da, honela:

Artikulu bakarra. Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen hirugarren xedapen iragankorra aldatzen da. Hona hemen testua:

«Hirugarren xedapen iragankorra. Etetea.

1. 2023ko maiatzaren 30era arte ez da eskabiderik onartuko, ez eta abeltzaintza-baimenik emanen ere,azienda larriko 1.250 unitate baino gehiagoko edukiera duten behien abeltzaintza-ustiategiak jartzeko.

2. Halaber, ez da eskabide berririk onartuko, ez eta baimen berririk emanen ere, jada badauden behien abeltzaintza-ustiategiak handitzeko, baldin eta zabalkundearen emaitzaazienda larriko 1.250 unitate baino gehiagoko ustiategia izanen bada.

3. Aurreko apartatueta ezarritako edukieramuga, kasua bada, ordeztuko da estatuko araudian oro har ezartzen denagatik, hura txikiagoa bada».

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko apirilaren 26an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da Nafarroako haur- eta gazte-populazioan suizidioa prebenitzeko estrategia bat ezar dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuua premiatzen du

1. Osasun Mentalerako aurrekontuaren gorakada nabarmena lor dezan.

2. Estrategia berezi eta berritzaile bat ezar dezan haur eta gazteen osasun mentaleko problemei heltzeko eta horiek artatzeko. Horretarako, nahitaez jo beharra dago Oinarrizko Osasun Laguntzara, osasun mentaleko zerbitzu espezializatuak zamagabetzeko.

3. Oinarrizko Osasun Laguntza sendotzearen horni dezan psikologiako zerbitzu bereziz, eraginkortasuna frogatu baitute osasun mentaleko problemen kasu arin eta moderatuen % 70ean.

4. Ziurta dezan zerbitzuak osasungintzako profesionalez hornituta egotea, psikiatriako eta psikologiako espezialitateak barne, egungo eskari guztiari erantzuteko.

5. Osasun Departamentutik bultzatzen den Nafarroako Foru Komunitate osoan sare-lana egitea baliabide komunitario ezberdinekin: Oinarrizko

Osasun Laguntzako osasungintza-langileekin, osasun mentaleko zentroetako osasungintza-langileekin, gizarte-zerbitzuekin, ikastetxeekin, gizarte-erakundeekin eta abarrekin.

6. Berritze-lana egin dezan, haur eta gazteen zuzenbideko hurbileko baliabide berriak sortuz, irisgarritasun handiagoa eskainiko dutenak, bai eta hurbilagoak ere haien eskaera, zalantza, beldur, antsietate, desorientazio eta abarretara.

7. Osasun-etxe guztietan prestakuntza-programak abiaraz ditzan, arreta pediatrikoa sendotzeaz gain.

8. Ikastetxe guztietan prestakuntza-programak ezar ditzan, irakasle, orientatzaile eta populazio-sektore hau artatzen duten gainerako profesionalen zuzendutakoak.

9. Osasun mentaleko problematika eta laguntza-baliabide eskuragarriak ikusarazteko eta horietaz sentsibilizatzeko kanpainak taxutu eta jendearenganatu ditzan.

10. Informazio-kanpainak egin ditzan, gurasoak kontzientziatze aldera sare sozialek haur eta gazteengan duten eraginaz eta horiek internet eta teknologiekin egiten duten erabileraz helduak jakituz izatearen beharraz.

11. Ohartaraztea pertsonen osasun mentalak beharrezkoa duela bizitzako lehen urteetan jorritako den esku-hartze bat, garai horretan tankertzen baita haurren oinarri emozionala".

Iruñean, 2022ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ukrainatik datozen errefuxiatuak hartze aldera Nasuvinsaren bidez egindako jarduketei buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Ukrainatik datozen errefuxiatuak hartze aldera Nasuvinsaren bidez egindako jarduketei buruzkoa (10-22/POR-00169).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Putinen inbasioaren ostean beren herrialdetik ihes egin duten ukrainar errefuxiatuak hartzeko Nafarroako Gobernua ematen ari den erantzunaren esparruan:

Zure departamentuak zer jarduketa egin du Nasuvinsa sozietate publikoaren bitartez?

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, AP-15ean joan-etorrian 24 ordu baino lehenago egiten diren bidaien finantzaketari buruzkoa.

EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean izapidetu dadin Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, AP-15ean joan-etorrian 24 ordu baino lehenago egiten diren bidaien

finantzaketari buruzkoa. Galdera 2022ko urtarrilaren 25eko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/POR-00035).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, 2019ko eta 2020ko soldata-masaren gehikuntza globalari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea 2019ko eta 2020ko soldata-masaren gehikuntza globalari buruz Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00124).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Sektore publikoaren esparruko ordainsarien arloan premiazko neurriak onesten dituen urtarilaren 21eko 2/2020 Errege Lege-dekretuaren 3. artikulua bigarren apartatua, honako hau xedatzen zen:

“Jarduera ekonomikoaren planifikazio orokorraren oinarri eta koordinazioari buruzko xedapenetan ezarritako igoera administrazio horien lansari sistema berriazkora egokitzearen ondoriozko mugen menpean.

Bi. 2020an, sektore publikoko langileen ordainsari ezin izango dute ehuneko 2tik gorako igoera globalik izan, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderatutako bi aldiak homogeenok izanik bai langile kopuruari bai horien antzinasunari erreparatuta. Ondorio horietarako, 2019ko ordainsarrietan BPGaren eboluzioarekin lotutako 0,25eko igoera aplikatzeko, urteko kopurua hartuko da kontuan. Ekintza sozialeko gastuak, oro har, 2020an ez dira igoko 2019koekin alderatuta. Horri dagokionez, gizarte-ekintzako gastuak egindako lanaren kontraprestazioez bestelako etekin, osagarri edo hobekuntzak direla irizten zaio, baldin eta haien xedea sektore publikoko langile horien inguruabar pertsonalen ondoriozko beharrezan jakin batzuei erantzutea bada.

Aurrekoaz gainera, BPGa barne-produktu gordinaren 2019ko igoera prezio konstanteetan ehu-

neko 2,5 edo handiagoa balitz, ehuneko 1eko soldata-igoera gehituko litzateke, eta horrek 2020ko uztailearen 1etik aurrera izango litzateke ondorioak. BPGaren gehikuntza goian aipatutako ehuneko 2,5era iristen ez bada, igoera proportzionalki murriztuko da, ehuneko 2,5 horrekiko aldearen arabera. Hala, honako hauek izango lirateke igoera globalak:

BPGaren ehuneko 2,1ko gehikuntza: % 2,20.

BPGaren ehuneko 2,2ko gehikuntza: % 2,40.

BPGaren ehuneko 2,3ko gehikuntza: % 2,60.

BPGaren ehuneko 2,4ko gehikuntza: % 2,80.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, BPGaren gehikuntzari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urte bakoitzeko BPGari buruz argitaratzen duen zenbatespen-aurrerapena hartuko da kontuan. INEk BPGaren aurrerapena argitaratu eta gero, Enplegu publikoa eta lan-baldintzak hobetzeko 2018ko martxoaren 9ko Akordioaren Jarraipen Batzordea jakitun jarri ondoren, igoeraren aplikazioa onartuko da, bidezkoa bada, Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabakiaren berri emango zaie autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari.

Gainera, soldata-masaren ehuneko 0,30eko igoera gehigarria baimendu ahal izango da honako neurri hauetarako, besteak beste: produktibitatea edo efizientzia hobetzeko plan edo proiektuak ezartzeko, eginkizun parekagarriak dituzten lanpostuetako berriazko osagarriak berrikusteko, destino-osagarriak homologatzeko eta pentsio-planen ekarpenak egiteko”.

Beste alde batetik, Nafarroako 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko martxoaren 4ko 5/2020 Foru Legearen 6. Artikulua haxe xedatu zuen:

«6. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak.

1. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsari gehikuntza izanen dute; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2022rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza orokorra. Horrek ez du ezertan galara-

ziko beharrezkoak diren ordainsari-doikuntzak egitea, beharrezkoa bada, halatan ziurtatzeko ezen lanpostu bakoitzari esleitutakoek behar bezalako zerikusia daukatela lanpostu horren edukiarekin, zailtasun teknikoa, dedikazioa, erantzukizuna, arriskugarritasuna edo nekagarritasun berezia dela eta.

Kontuen Ganberak 2020ko Kontu Orokorrei buruz egindako txostenean honako datu hauek agertzen dira: I. kapituluko gastua, guztira, 1.469.057.232 euroraino igo zen, 2019ko ekitaldian gastu hori, guztira, 1.406.204.391 eurokoa izan zen bitartean, alegia, kapitulu horretan % 4,47ko igoera egon zen.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1- Nafarroako Gobernuaren ustez, 2020ko ekitaldian gorde egin al zen haren zerbitzuko langileen ordainsarien gehieneko muga, Sektore publiko-

aren esparruko ordainsarien arloan premiazko neurriak onesten dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege-dekretuan ezarritakoa?

2- Nafarroako Gobernuaren ustez, 2020ko ekitaldian I. Kapituluaren gastuan izandako % 4,47ko gehikuntzak gainditu al zuen Gobernuaren zerbitzuko langileen soldata-masaren gehikuntza globala? % 4,47ko gehikuntza horrek gainditu al zuen zati finkoaren eta BPGaren hazkundearekin lotutako aldagaiaren baturaren gehieneko muga?

3.- I. Kapituluaren gastuan zer igoera portzental egon da 2021eko ekitaldian? Portzentalaje horrek gainditzen al du Estatuaren 2021erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legeak 18. Artikuluak ezarritako % 0,9ko igoera globalak?

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketaren gainean Kontuen Ganberak egindako txostenean aipatzen diren kontratuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketaren gainean Kontuen Ganberak egindako txostenean aipatzen diren kontratuei buruzkoa (10-22/PES-00125).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erre-

gelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuaren Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

COVID-19a dela-eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2020ko martxotik abendura bitarte egin duen kudeaketari buruz Kontuen Ganberak egindako txostenak ondorioztatzen duenez. ondasun eta zerbitzuen gastu arruntak 70,40 milioi euro egin zuela 202ko abenduaren 31n, horietatik 14,88 milioi besterik ez ziren kontratu formalizatu eta kontratazioaren atarian argitaratutako zegozkienak. Kontratu horiek direla-eta, hauxe jakin nahi dut:

1- Kontratu guztien zerranda eta haietako bakoitzaren gastua, ondasun eta zerbitzuen gastu arruntaren 70,48 milioi horietatik.

2-- Kontratu horietako bakoitzaren izapidea zertan den.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, pandemiari aurre egiteko langileen kontratuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea pandemiari aurre egiteko langileen kontratuei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00126).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cris-

na Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

COVID-19a dela-eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2020ko martxotik abendura bitarte egin duen kudeaketari buruz Kontuen Ganberak egindako txostenak ondorioztatzen duenez, ezinezkoa da egin ziren kontratuen kuantifikazioa egitea.

Langileen zenbat kontratu egin zuen 2020an Nafarroako Gobernuak pandemiari aurre egiteko, profil profesionalen eta departamentuen arabera?

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketari buruzko txosteneko aurrekontu-partidetan jaso gabeko gastuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, COVID-19a dela-eta 2020ko martxotik abendura bitarte izandako kudeaketari buruzko txosteneko aurrekontu-partidetan jaso gabeko gastuei buruzkoa (10-22/PES-00127).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia

dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

COVID-19a dela-eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2020ko martxotik abendura bitarte egin duen kudeaketari buruz Kontuen Ganberak egindako txostenak ondorioztatzen duenez, COVID-19arekin lotutako gastu batzuk ez daude jasota gisa horretan identifikatutako aurrekontuko partidetan, eta COVID-19 partidetan sartutako gastu batzuk ez ziren han erregistratu behar.

Nafarroako Gobernuak akats horiek zuzendu al ditu? Nola aldatzen dira datuak, zenbatekoei eta partidei dagokienez, Kontuen Ganberaren txosteneko dautekin alderatuta?

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Ukrainako egoerara bideratutako dohaintzei buruzkoa.

JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ukrainako egoerara bideratutako dohaintzei buruz Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00128).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1- Nafarroako Gobernuak zenbateko ekonomikoren bat ezarri al du dohaintza izaerarekin, Ukrainako populazioaren egoera humanitarioa dela-eta? Baiezkoan, zer entitate edo erakunderi eman dio eta zer kopururekin?

2- Egia al da Nafarroako Gobernuak erabaki duela parterik ez hartzea Foru erkidegoko mugeetatik harago garatzeko ekimenak edo ekintzak proposatzen dituen inongo ekimenetan?

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

Galdera, pandemiari aurre egiteko Nafarroa Gobernuak erositako osasun alorreko materialari, teknologiarri eta Norbera Babesteko Ekipamenduei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, pandemiari aurre egiteko Nafarroa Gobernuak erositako osasun alorreko materialari, teknologiarri eta Norbera Babesteko Ekipamenduei buruzkoa (10-22/PES-00129).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, pandemiari aurre egiteko erositako osasun alorreko materialari buruzko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1- Pandemiari aurre egiteko Nafarroa Gobernuak erositako osasun alorreko materialaren, teknologiarri eta Norbera Babesteko Ekipamenduen zerrenda, honelakoetan: ordaindu bai baina iritsi ez zena, iritsi bai baina EE homologaziorik ez zuena, osasun alertaren bat izan duena, erosketa egiteko kalitate irizpideak betetzen ez zituena, deskatalogatuta dagoena edo eskatu zen xedera-ko erabili ezin izan dena.

2- Aurreko kasuetan, zehaztu kostuak eta Nafarroako Gobernuak geroago hartu zituen neurriak.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, pandemiari aurre egiteko SODENaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, pandemiari aurre egiteko SODENaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteari buruzkoa (10-22/PES-00130).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, pandemiari aurre egiteko SODENaren eta CENen lankidetzarekin Norbera Babesteko Ekipamenduak erosteko espedienteari buruzko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomiko eta Enpresarietako konseilariak idatziz erantzun dezan:

1- Erosketarako enpresak eta haien hautatzeko erabilgarri irizpideak.

2- Materiala banatzeko irizpideak eta espedientetik materiala jaso arte iragandako denbora.

3- Materialaren prezio unitarioa, enpresa bakoitzeko.

4- Iritsi zen material guztiak EE homologaziorik al zuen? Ezezkoan, zehaztu homologazio hori ez zuen materiala eta nola kudeatu zen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuetan aurreikusitako betebeharrak betetze alderako neurriei buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuetan aurreikusitako betebeharrak betetze alderako neurriei buruzkoa (10-22/PES-00131).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginturiko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Enpleguan eta lanean emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege-dekretuaren bidez berdintasun-plan bat egiteko betebeharra zabaldu da 50 langile edo gehiagoko plantilla duten enpresentzat. Eta 2021eko apirilaren 14tik berdintasun-planetan ordainsari-auditoriak egon beharko dira. 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuetan berdintasunari dagokionez biltzen diren araudiko betebeharrak argiak badira ere, Nafarroako enpresa gutxietan ezarri zira. Horregatik, honako hau galdetzen dugu:

Zer neurri ezarri gogo du Nafarroako Gobernuak 901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuetan aurreikusitako betebeharrak bete daitezkeen?

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, Estudios Melitón SL merkataritza-enpresari instalazioak errentan hartzeari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, Estudios Melitón SL merkataritza-enpresari instalazioak errentan hartzeari buruzkoa (10-22/PES-00132).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Noiz jarri zituen Nasuvinsak Estudios Melitón SL merkataritzako enpresaren eskura bi entitate-ek 2018ko maiatzaren 31n sinatutako errentamendu kontratuaren xedeko instalazioak?

Hileko zenbat kuota ordaindu du Estudios Melitón SL merkataritza enpresak Nasuvinsaren aldeko errentamendu errenta gisa?

Noiz amaitu zen aipatu kontratuko laugarren hizpaketan Estudios Melitón SLren alde ezarritako gabealdia?

Zein izan da, azken buruan, Nasuvinsak instalazioen obrak egiteagatik guztira ordaindutako kostu osoa?

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko diseinatu duen programari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enpresen kudeaketan prebentzioa integratzeko diseinatu duen programari buruzkoa (10-22/PES-00133).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Berriki, Osasuneko kontseilari Santos Induráin andrea Osasun Batzordera agertu zen, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak enpresen kudeaketan prebentzioa integrazeko diseinatu duen programari buruz

informatzeko. Programaren xedea da prebentzioa enpresaren kudeaketan integratzea eta arriskuen kudeaketa hobetzea lanaren ondoriozko kalteen maiztasuna eta larritasuna murrizte aldera. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Zer neurri ezarri nahi ditu Nafarroako Gobernuak lortze aldera ahalik eta enpresa gehien atxikitzeko programa horri?

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, Larraintzarko Ikastetxe Publikoko eraikinaren narriadurari buruzkoa.

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak aurkezturiko galdera, Larraintzarko Ikastetxe Publikoko eraikinaren narriadurari buruzkoa (10-22/PES-00134).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ezagutzen al du Larraintzarko Ikastetxe Publikoko eraikinak, 2018an eraikitakoak, izan duen narriadura?

Txostenen bat prestatu al du eraikinaren narriaduraren zergatia jakiteko?

Txostenen bat prestatu al du kalteek eraikinen segurtasuna ukitzen ote duten jakiteko? Zer neurri hatu dira edo hartuko dira ikasleen segurtasuna bermatzeko?

Aurreikusi al da obraren bat egitea eraikina konpontzeko? Noizko aurreikusten da obra horien hasiera?

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

Galdera, Valle de Odieta SCLri eta Hibridación Termosolar Navarra, SLri Caparrosoko abeltegitzarrerako emandako ingurumen-baimenaren baldintzak ofizioz berrikusteari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Valle de Odieta SCLri eta Hibridación Termosolar Navarra, SLri Caparrosoko abeltegitzarrerako emandako ingurumen-baimenaren baldintzak ofizioz berrikusteari buruzkoa (10-22/PES-00135).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren abenduaren 21eko 333/2020 epaia betez, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2020 Ebazpenaren bidez, ingurumen baimen integratua eman zizaion Caparrosoko udal-mugartean dagoen esne-behien ustiategiaren eta hondakinen biometanizaziorako plantaren instalazioari, zeinaren titularrak Valle de Odieta SCL eta Hibridación Termosolar Navarra SL baitira, halako moldez non instalazioak eta jarduerak bete behar-ko baitituzte ingurumen baimen integratuaren proiektuan eta administrazio-espeditera bildutako gainerako agiri gehigarrietan ezartzen diren baldintzak, bai eta, edozein kasutan, ebazpen honen eranskinetan jasotako baldintzak eta neurriak ere.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak 2021eko maiatzaren 11n parlamentuan egindako agerraldian, adierazi zen, lehen aipatu den Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2020 Ebazpenean:

«(...) hiru eskakizun sartzen ditugu, benetan oso zorrotzak diren baldintzetan.

GPS sistema autogidatu bat erabili behar-ko da digestato likidoaren banaketarako ekipoa, hona-

koak hauek izanen dituena: trazabilitate geografikoa, geoerreferentziatua eta datuen PC bidezko bisualizazioa egindako lanetan. Gainera emari-neurgailu bat instalatuko da digestato likidoa banatzeko ekipoa, neurtze aldera laborantzako lurzatietan aplikatzen den digestatoaren frakzio likidoaren dosia. Eta titularrak aplikatutako simaur eta digestatoen erregistro bat eduki behar-ko du, non agertuko diren honako hauek: simaur edo digestato mota, aplikazio data, udalerrria, poligonoa, lurzatia, labore mota, azalera erabilgarria, azalera aplikatua, aplikatutako simaur dosia, aplikatutako nitrogeno dosia eta aplikatutako fosforo dosia”.

Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 20ko 108E/2021 Ebazpen bidez erabaki zen 0001 53-2021 002 zenbakiko prozedura administratiboa abiaraztea, ofizioz berrikusteko Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpen horren bidez emandako ingurumen baimen integratua. Helburua zen berrikustea behi-aziendaren ustiategiko hondakin-uren eta simaurren kudeaketa, digestoreen funtzionamendu-araubidea, biometanizazio-plantan ekoiztutako biogasaren bidez elektrizitatea ekoizteko instalazioa eta simaurra eta digestatoa ekoizteko eta kudeatzeko plana.

Aipatu agerraldian Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak honela justifikatu zuen ingurumen baimen integratua ofizioz aldatzea: “Ikusirik hura erabiltzeko dokumentazio teknikoa zaharra zela (...) eta iragandako denbora (...) beharrezkoa da ingurumen baimen integratu berrian ezarritako baldintza jakin batzuk berrikustea, garatzen diren jarduerak egokitze-ko egun eskura dauden tekniko hobeetara, ene ustez urte hauetan nabarmen aldatu baitira”.

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 163/2021 autoaren bidez erabaki zen onestea alderdi betearazleak aurkeztutako arazo intzidentala epaia betearazteko fasean, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpena zuzenbidez deuseza zela deklaratu zen eta Nafarroako Gobernuari errekerimendua egin ziztaion autoa bete zezala bertan ezarritako

moduan, aipatu autoaren bigarren arrazoibide juridikoan azalduta geratu zenaren arabera.

Aldi berean, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren abenduaren 21eko 438E/2021 Ebazpenaren bidez erabaki zen uko egitea 0001 53-2021- 00002 zenbakiko prozedura administratiboa izapidetzeari, Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren bidez emandako ingurumen baimen integratua ofizioz berrikusteari buruzkoa baitzen, eta prozedura amaitutzat deklaratu eta jarduketak artxibatzea erabaki zen.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi al du xedapen administratibo ren bat edo indarrean daudenetakoren bat aldatzea Valle de Odieta, SCL eta Hibridación Termosolar Navarra, SL behartze aldera erabil dezatela GPS sistema autogidatu bat digestato likidoaren banaketarako ekipoa, honakoak hauek izanen dituena: trazabilitate geografikoa, geoerreferentziatua eta datuen PC bidezko bisualizazioa egindako lanetan?

2- Edo, bestela, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak uste al du digestato likidoaren banaketarako ekipoa GPS sistema autogidatu hori erabiltzeko neurria ez dela jadanik beharrezkoa eta ez dela eskura dagoen teknika hobe bat banaketa horren eta simaurrak kudeatzeko planaren kontrolerako?

3. - Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi al du xedapen administratibo ren bat edo indarrean daudenetakoren bat aldatzea Valle de Odieta, SCL eta Hibridación Termosolar Navarra, SL behartze aldera ezar dezatela emari-neurgailu bat digestato likidoa banatzeko ekipoa, neurtze aldera laborantzako lurzatietan aplikatzen den digestatoaren frakzio likidoaren dosia?

4- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak aurreikusi al du xedapen admi-

nistratibo ren bat edo indarrean daudenetakoren bat aldatzea Valle de Odieta, SCL eta Hibridación Termosolar Navarra, SL behartze aldera aplikatutako simaur eta digestatoen erregistro bat eduki dezatela, non agertuko diren honako hauek: simaur edo digestato mota, aplikazio data, udalerria, poligonoa, lurzatia, labore mota, azalera erabilgarria, azalera aplikatua, aplikatutako simaur dosia, aplikatutako nitrogeno dosia eta aplikatutako fosforo dosia?

5- Egun Valle de Odieta, SCL-k eta Hibridación Termosolar Navarra, SL-k aplikatutako simaur eta digestatoen erregistroren bat erabiltzen al dute, no aipatutako datuak ezagutzen ahal diren?

6- Ingurumeneko zuzendari nagusiaren martxoaren 12ko 222E/2021 Ebazpenaren bidez emandako ingurumen baimen integratua ofizioz berrikusteko prozedura amaitutzat deklaratu eta artxibatu denez, ebazpen hori zuzenbidez deuseza zela deklaratu baitzen, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak oraindik uste al du berrikusi behar direla Valle de Odieta, SCL-k eta Hibridación Termosolar Navarra, SL-k Caparrosen dituzten abeltzaintzako instalazioen eta biometanizazio plantaren funtzionamendurako baldintzak?

7. - Zer neurri hartuko du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak berrikuste aldera instalazioaren funtzionamendurako baldintzak, behi-aziendaren ustiatetik hondakin-uren eta simaurren kudeaketa, digestoreen funtzionamendu-araubidea, biometanizazio-plantan ekoiztutako biogasaren bidez elektrizitatea ekoizteko instalazioa eta simaurra eta digestatoa ekoizteko eta kudeatzeko plana direla-eta, horiek ofizioz berrikusi nahi baitziren Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariaren maiatzaren 20ko 108E/2021 Ebazpen bidez?

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Kontu-hartze Zerbitzuaren aldetik sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideak bateratzeari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Kontu-hartze Zerbitzuaren aldetik sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideak bateratzeari buruzkoa (10-22/PES-00136).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, idatziz erantzun dezan:

"Tracasa Instrumental S.L.ri egindako enkarguak (2017-2019)" txostenean Kontuen Ganberak honako hau dio: "Egiaztatu dugunez, kontratatutako lanaren zenbatekoa 15.000 eurotik beherakoa bada, kasu batzuetan, esku hartzen duten langileek enkargu bat egitea eskatzen dute; eta beste batzuetan, faktura eta kreditu-erreserba baino ez, araudiak ezartzen duen bezala".

Kontuen Ganberak "Tracasa Instrumental SLri egindako mandatuen gaineko gomendioen jarraipena" izenarekin prestatutako txostenak dioenez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bete gabeko gomendioetako bat honako hau da: "Kontu-hartzaitza Zerbitzuak sozietate publikoei 15.000 eurotik beherako lanak eskatzeko irizpideak bateratzea, araudia aintzat hartuta, baliabide publikoak eraginkortasunez, efizientziaz eta arin kudeatze aldera".

1.- Zer kasutan exigitzen da enkargu bat egitea? Zer unitatek egiten du?

2.- Zer kasutan exigitzen da faktura eta kreditu-erreserba? Zer unitatek egiten du?

3.- Zer egingen du Nafarroako Gobernuak Kontu-hartze Zerbitzuak irizpideak bateratze aldera? Noiz egingen du?

Iruñean, 2022ko apirilaren 13an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Emanzipa programaren onuradunen adin-tartea zabaltzeari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emanzipa programaren onuradunen adin-tartea zabaltzeari buruz Ángel Ansa EcheGARAY jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00137).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikotako kontseilari, idatziz erantzun dakion:

Joan den martxoan Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Bartzordeak Navarra Sumak aurkeztutako mozio bat onetsi zuen, honela zioena: "Programaren balizko onuradunen adin-tartea 35era urtera bitartekoa izateraino handitzea legegintzaldia bukatu aitzin". Noizko aurreikusten du handitze hori aplikatzea?

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

Galdera, Etxebizitza Partekatuko Belaunaldiarteko Programa abian jartzeari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak aurkezturiko galdera, Etxebizitza Partekatuko Belaunaldiarteko Programa abian jartzeari buruzkoa (10-22/PES-00138).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

2019-2023 legegintzaldirako programa akordioak, "Gazteria" izeneko atalean, 94. puntuan, honako hau dakar: "Etxebizitza partekatuko belaunaldiarteko programa bat sustatzea, jabe nagusiekin eta baliabide ekonomiko gutxiko unibertsitateko edo goi mailako lanbide heziketako ikasleei zuzendua, bai eta belaunaldiarteko bizikidetzaren esperientzia bat ere".

Noizko aurreikusten duzu programa hori abiaraztea?

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

Galdera, erosteko aukera ematen duen alokairuaren eredia bultzatzeari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea erosteko aukera ematen duen alokairuaren eredia bultzatzeari buruz Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00139).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginturiko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

2019-2023 legegintzaldirako programa akordioak, "Gazteria" izeneko atalean, 94. puntuan, honako hau dakar: "Erosteko aukera ematen duen alokairuaren eredia bultzatzea, independizatzeari eta bizi aldi berri bat hasteari begira".

Noizko aurreikusten du aipatu eredia bultzatzea, kontuan hartuz Gobernuak orain arte abiarazitako neurriak mugatu direla soil-soilik etxebizitzaren alokairura?

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, azken hogeita lau hilabeteetatik gutxienez seitan Nafarroatik kanpo bizi izan diren gazteen itzulerarako plana abian jartzeari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, azken hogeita lau hilabeteetatik gutxienez seitan Nafarroatik kanpo bizi izan diren gazteen itzulerarako plana abian jartzeari buruzkoa (10-22/PES-00140).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua aginturiko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

2019-2023 legegintzaldirako programa akordioak, "Gazteria" izeneko atalean, 93. puntuan, honako hau dakar: "Azken hogeita lau hilabeteetatik gutxienez seitan Nafarroatik kanpo bizi izan diren gazteen itzulerarako plana abian jartzea"

Noizko aurreikusten duzu hori abiaraztea?

Iruñean, 2022ko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, etendako kirurgiei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea etendako kirurgiei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00141).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Legegintzaldian zehar ebakuntzako egunean etendako kirurgien hilabeteko kopurua, pazienteen osasun arazoaren zioengatik izan ez badira.

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Foremeko eta Iruñeko apaiztegiko COVID txertatzerako langileei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Foremeko eta Iruñeko apaiztegiko COVID txertatzerako langileei buruzkoa (10-22/PES-00142).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1- 2022an Foremen COVID txertaketan lan egin dutenen eguneroko kopurua eta profil profesionala.

2- 2022ko urtarrilaren 1etik Iruñeko apaiztegiko COVID txertaketan lan egin dutenen eguneroko kopurua eta profil profesionala.

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, premiazko prozeduraren bidez egindako kontratuei buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea premiazko prozeduraren bidez egindako kontratuei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00143).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cris-

na Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan premiazko prozeduraren bidez egindako kontratu guztien zerrenda, haietako bakoitzean honako hauek zehaztuta:

1) Kontratazio-espeditarearen hasieraren data.

2) Kontratuaren zenbatekoa.

3) Premiazko prozeduraren zioa.

4) Gastu erreala gaurko egunera arte.

5) Egungo egoera, bertan zehaztuta kontratazio atariko argitalpenik, fiskalizaziorik eta txosten teknikorik ote dagoen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean.

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, material sanitarioa eta soziosanitarioa erosteko premiazko kontratuetan bitartekariak egoteari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, material sanitarioa eta soziosanitarioa erosteko premiazko kontratuetan bitartekariak egoteari buruzkoa (10-22/PES-00144).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari, idatziz erantzun dezan:

Bitartekariren bat egon al da material sanitarioa eta soziosanitarioa erosteko Nafarroako Gobernuko departamenturen, organismo publikoren edo sozietate publikoren batek 2020ko martxoaren geroztik egindako premiazko kontraturen batetan?

Zerrenda eskatzen da, honako hauekin: bitartekaria eduki duten kontratuak, bitartekariaren izena, premiazko kontratua egin den data eta zenbatekoa, eta, kasua bada, bitartekaritzaren kostua.

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua aldaketari, abenduaren 29ko 20/2020 foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotzen den horri buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua aldaketari, abenduaren 29ko 20/2020 foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian jasotzen den horri buruzkoa (10-22/PES-00145).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikulua eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari lehendakariari, idatziz erantzun dezan:

Kontuen Ganberak "Tracasa Instrumental SLri egindako mandatuen gaineko gomendioen jarraipena" izenarekin egin duen txostenak, honako hau dio Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.4 artikulua aldaketari buruz, abenduaren 29ko 20/2020 foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian sartzen baita:

"Ganbera honen iritziz, kontratazioari buruzko araudiaren aldaketa hori ez dator bat Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauak, kontratazio publikoari buruzkoak, 12. artikulua ezarritakoarekin. Izan ere, 12. artikulua horren 2. apartatuaren arabera, botere adjudikatzaile beraren menpekoak diren pertsona juridikoen arteko kontratazioa kontratazio publikoari buruzko arauen aplikaziotik kanpo geldituko da soilik bi pertsona juridiko horiek 12. artikulua 1. apartatua ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztenean; Tracasa Mercadok ez ditu betetzen baldintza horiek, bere jardueraren ehuneko 20 baino gehiago sektore pribatuarentzat egiten duelako".

1.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du aipatu artikulua aldatzea Europako araudira egokitzeko?

2.- Hala bada, noiz egingen du?

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, Metautenen eta Zuñigan eraikitako bizikletendako bideen erabilerari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Metautenen eta Zuñigan eraikitako bizikletendako bideen erabilerari buruzkoa (10-22/PES-00146).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dakion.

Analisiren bat al dago jarraipena edo estatistika egiteko zure departamentuak Metautenen eta Zuñigan eraikitako bizikletendako bideei buruz? Bideak esperientzia "pilotu" gisa aukeratu dira Reactivar Navarra-Nafarroa Suspertu Plana 2020-2023 Planean, apustua egiten baitu mugikortasun jasangarriaren alde eta ibilgailu motordun pribatuaren ordezeko garraiobideak sustatzearen alde.

Baiezkoan, datu osoak eskatzen ditugu.

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2022ko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako gizarteak askotan erakutsi du elkartasuna behartsuenekiko, eta, ildo horretatik, jarduketa esanguratsuak egin dira, bai araudiaren arloan, bai exekutiboan, honako xedearekin: giza garapenerako, pobrezia desagerrarazteko eta herritar guztiek eskubide unibertsalak osoki baliatu ahal izateko laguntza ematea.

Pobrezia Desagerraraztearen aldeko Nazioarteko Eguneko ekitaldien baitan, eta talde parlamentario guztien elkarlanari eta horien eta gizarte zibil antolatuaren elkarlanari esker, Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeko kideek Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) sinatu zuten Gizarte Entitateen Plataformarekin. Itunaren helburua da, besteak beste, aurrera egitea Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 2015eko irailean onetsitako Garapen Jasangarrirako 2030 Agendak ezarritako bidean. Gainera, Pobreziaren eta Desberdinkeriaaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) Nafarroako Parlamentuaren konpromisoa, garapenerako hezkuntzaren arloko proiektuen deialdiari eustekoa, jasotzen du, 2024. urterako Parlamentuaren aurrekontuaren % 0,7ra iristeko xedearekin.

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txosten bat

taxutu du, 2022ko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia –bai eta kasuko oinarri arautzaileak ere– onesteari begira. Espedientea txosten juridikoarekin eta Kontu-hartzailetzak egindako gastu-fiskalizazioarekin osatu da.

Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak honako hau ERABAKI DU:

1. 2022ko ekitaldian Garapenerako Hezkuntzako proiektuak egiteko dirulaguntzen deialdia onestea.

2. Guztira 74.000 euroko gastua baimentzea, Nafarroako Parlamentuaren 2022ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 48207 “Garapenerako eta elkartasunerako jardueretarako dirulaguntzak” partidaren kargura.

3. Erabaki honen eranskinean jasotzen diren deialdiaren oinarri arautzaileak onestea.

4. Erabaki hau eta kasuko eranskinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANSKINA

2022KO EKITALDIAN GARAPENERAKO
HEZKUNTZAKO PROIEKTUAK EGITEKO
DIRULAGUNTZEN DEIALDIA ARAUTZEN
DUTEN OINARRIAK

Primera- Objeto y finalidad

Segunda- Entidades beneficiarias

Tercera- Requisitos de la intervención

Cuarta - Compatibilidad de subvenciones

Quinta- Presentación de solicitudes

Sexta- Documentación a presentar

Séptima- Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención

Octava- Obligaciones de las entidades beneficiarias

Novena- Anticipo de subvención, pago y justificación

Décima- Gastos subvencionables

Undécima- Criterios de valoración

Duodécima- Recursos

Lehena- Xedea eta helburua:

Nafarroako Parlamentuak aurreko ekitaldietako bidetik jarraitzen du eta, ahal duen neurrian, laguntzen du garapen jasangarrirako helburuak lortzen eta mundu zuzenagoa, baketsuagoa, tolerantagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa eraikitzen. Xede horrekin, dirulaguntza-deialdi hau onetsi du, Garapenerako Sentsibilizazio eta Hezkuntzako esku-hartzeak Nafarroan egiteko. Esku-hartzeen helburua izanen da garapen-bidean dauden herrialdeek pairatzen dituzten problemekin zerikusia duten alderdietan eta horien zergatietan sentsibilizatu edo prestakuntza ematea, eta mundu globalizatuari buruzko ulermena erraztea, jarrera kritikoa eta errealitatearekin konprometua ernaraziz, txirotasunaren aurkako borrokarikiko konpromisoa eta erantzukidetasuna sortuko dituena. Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030eko Agendan onartu dituen Garapen Jasangarriko Helburuetakoren bat garatu beharko dute esku-hartzeek.

Horretarako 74.000 euro bideratuko dira, Nafarroako Parlamentuaren 2022ko ekitaldirako Gastuen Aurrekontuan berariaz onetsitako partida honetatik: 48207 “Garapenaren eta elkertasunaren arloko jardueretarako dirulaguntzak”.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.1. artikularekin bat etorritz, deialdia norgehiagoka-araubidean izapidetuko da.

Bigarrena- Entitate onuradunak:

Honako betekizun hauek betetzen dituzten entitateak izan ahalko dira dirulaguntzaren onuradun:

- Zein bere izaeraren arabera legez eraturako pertsona juridikoak izatea, eta inskribatuta egotea Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziako Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Erregistroan (AECID).

- Nafarroan egoitza soziala edo ordezkaritza iraunkorra izatea.

- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan azaltzen diren egoeretako batean ere ez egotea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 8.3 artikularen arabera, onuradun izan ahalko dira, halaber, elkartuta aurkezten diren entitateak, aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badituzte eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoa betetzen badute.

Hirugarrena- Esku-hartzearen betekizunak:

- Helburu gisa edukitzea lehen oinarrian jasotakoa.

- 2022ko ekitaldian exekutatzea. Hala ere, dirulaguntzaren xede den jarduna ohikotasunez garatzen den urte-aldia ez datorrenean bat aurrekontu-ekitaldiarekin –esaterako, ikasturtea–, jarduera horretarako dirulaguntzak urte-aldi horretara moldatzen ahalko dira eta, halakoetan, zilegi izanen da jarduera 2023ko ekainaren 30erako amaitzea.

- Jarduerak Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-eremuan garatuko dira.

- Nafarroako Parlamentuak diruz lagundu beharreko gehieneko zenbatekoa: 12.000 euro.

Esku-hartzearen garapena eraldatu edo zailtzen duten gorabeherak gertatuz gero, zilegi izanen da harduera horiek egiteko epeak luzatzea. Horretarako, Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus) eskabide-orri bat aurkeztu beharko da, Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari zuzendua, epea luzatzea eskatu eta azaltzen dituena esku-hartzea hasiera batean aurreikusitako epean gauzatu ezinaren arrazoiak.

Edonola ere, jarduerak egiteko gehieneko epea 2023ko ekainaren 30ean amaituko da.

Laugarrena- Dirulaguntzen bateragarritasuna:

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira jarduera garatzeko lor daitezkeen beste batzuekin, eta emaileak izan daitezke administrazio publikoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuk nahiz partikularrak, nazionalak edo nazioartekoak.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak, bere horretan edo beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuekin edo dirulaguntzaren xede den jardueraren baliabide berekiekin batera, ezin izanen du ezein kasutan gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua.

Bosgarrena- Eskaerak aurkeztea:

Entitate eskatzaile bakoitzak gehienez eskaera bat aurkeztu ahal du. Eskaeratzat zenbatuko dira bai bakarka aurkeztutakoak bai entitate-elkarre baten parte izanik aurkeztutakoak. Baldin eta entitate batek bakarkako eskaera bat eta beste entitate batzuekiko elkartean eginiko beste eskaera bat aldi berean aurkezten baditu, bi eskaera horiek deialditik kanporatuak izanen dira.

Eskaera Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean aurkeztuko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako erregistroetatik edozeinetan, gehienez ere 15 egun baliouduneko epean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Nafarroako Parlamentuko Erregistroan aurkezteko, seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioa posta elektronikoki bidez igorri beharko da, digitalki sinaturiko Nafarroako Parlamentuko eskabide orokor batez lagunduta, honako helbide honetara: erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus

Nafarroako Parlamentuko eskabide orokorra Nafarroako Parlamentuaren webgunetik deskargatu daiteke: <https://www.parlamentodenavarra.es/es/contactar>

Seigarrena- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskabide orokorarekin batera, entitate eskatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

l) Dokumentazio orokorra:

a) Deialdian adierazitako eredia (I. eranskina) erabili behar da dirulaguntzaren eskaera egiteko, eta bertan entitate eskatzaileak adierazi behar du

bigarren oinarrian ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela.

b) Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziako Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Erregistroan egindako inskripzioaren ziurtagiria, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean dagoen ordezkaritzaren edo egoitzaren aipamenarekin. Deialdi hau argitaratu baino urtebete lehenago jaulkitakoa izanen da gehienez ere.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, non ziurtatuko baita ezen entitate eskatzaileak bete egiten dituela erakunde onuraduna izan ahal izateaz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako betekizunak (II. eranskina).

d) Entitate-elkarteen kasuan, entitate bakoitzaren dokumentazioaz gain, honako hauek aurkeztuko dira:

d.1) Entitate-elkartearen eratze-agiria. Elkartek nortasun juridiko berekirik ez badu, eratze-agirian espresuki izendatua agertu beharko da ahalordedun edo ordezkaririk bakarrik, elkartek onuradun gisa izanen dituen betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoak izanen dituen, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean aurreikusitako preskripzio epea amaitu arte elkarre ez desegiteko konpromisoa ere agertu beharko da.

d.2) Honako hau azaltzen duen agiria: elkarre entitate bakoitzak proiektuaren exekuzioan zer funtzio eta eginkizun hartuko dituen bere gain, elkartearen izenean eta haren kontura; eta elkarre entitate bakoitzari aplikatuko zaion dirulaguntzaren zenbatekoa.

e) Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera.

f) Emandako dirulaguntza osoa aurretik ordaintzea zilegi den kasuetako entitateei dagokienez, 9.1 oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztuko da.

Eskaerak ez baditu ezarritako betekizunak betetzen, interesdunari aginduko zaio gehienez hamar eguneko epean akatsa zuzendu dezan edo aginduzkoak diren dokumentuak aurkez ditzan. Ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egintzat joko dela, aurrez ebazpena emanda. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritako moduan eman beharko da.

II Baloraziorako dokumentazioa:

A) Esperientzia:

a) Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzatutako Garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazio proiektuen zerrendadun taula (III. eranskina).

b) III. eranskinean adierazitako dirulaguntzak emateko ebazpenaren kopia.

B) Esku-hartzeari buruzko oroitidazki teknikoak. Berdintasunaren aldeko eta bazterketaren kontrako hizkera erabiliz idatzi beharko da. Pertsonen buruzko datu guztiek sexuaren arabera bereizita egon beharko dute.

C) Esku-hartzeari buruzko oroitidazki ekonomikoa (kalkulu-orrian).

Oroitidazki teknikoa eta ekonomikoa IV. eranskinean jasotako datu-orriari jarraikiz aurkeztuko dira.

Zazpigarrena- Dirulaguntza emateko prozedura antolatzeke, instruitzeke eta ebazteke eskumena duten organoak:

Nafarroako Parlamentuko Zerbitzu Juridikoetako eta Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuetako teknikariek osatutako balorazio-batzordeak antolatuko du prozedura. Kide anitzeko organo horrek ebaluatuko ditu eskaerak, eta haren irizpena loteslea izanen da.

Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua izendatzen da instrukzio organo. Instrukzio organoak, eskaeren ebaluazioa ikusirik, ebazpen proposamena eginen du.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berariaz hartutako erabakiaren bidez ebatziko da dirulaguntzak emateari buruz, instrukzio organoak proposatutako txostena oinarri hartuta.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hiru hilabete igarotakoan ebazpen espresurik jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi dela ulertu ahalko da.

Zortzigarrena- Entitate onuradunen betebeharrak:

Dirulaguntza jasotzen duten entitateek betebeharrak izanen dituzte:

a) Esku-hartzea eskaeran deskribatu duten moduan egitea.

b) Betekizunak eta baldintzak betetzen dituzte frogatzea Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzen badituzte, jakinaren gainean jartzea Nafarroako Parlamentuko Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua.

d) Dirulaguntza emateko ebazpena ematen den unean egunean edukitzea beren zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

e) Nafarroako Parlamentuarekin elkarlanean proiektuaren berri zabaltzea, Nafarroako iritzia publikoa garapenerako lankidetzari buruz sentikortzeko.

Nafarroako Parlamentuak entitate onuradunei dei eginen ahalko die Nafarroako Parlamentuan eginen den ekitaldi publiko batean parte har dezaten. Ekitaldi horretan, entitate onuradun guztiek diruz lagundutako proiektuaren exekuzioa aurkeztuko dute.

f) Jarduerak egiteko erabiltzen dituzten baliabideetan eta materialetan agerraraztea Nafarroako Parlamentuak finantzatuta eginen direla jarduerak.

g) Organo emaileak egiaztapen eta kontrol jarduketak egin ditzan onartzea.

h) Jasotako funtsak zertarako erabili diren frogatzen duten agiriak gordetzea, egiaztapen eta kontrol jarduketarako beharrezkoak izan daitezkeen bitartean.

i) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea.

j) Entitate onuradunak eman zaion dirulaguntzari uko egitea erabakiz gero, bi hilabeteko epean egin beharko du uko, laguntza eman zaiola jakinarazi zaion egunetik zenbatuta. Uko egitea Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari zuzenduko zaio, Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (erregistroa@nafarroakoparlamentua.eus) aurkeztutako idazki baten bidez.

Aldez aurretik ordaindutako zenbatekoa itzuli beharko du, Kontu-hartzailetza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzutik adierazitako prozeduraren bidez. Uko eginiko zenbatekoa, behin Nafarroako Parlamentuak jasota, hamaikagarren oinarrian eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu arren aurrekontuan diru erabilgarri aski ez egoteagatik laguntzarik eskuratu ez duten proiektuei esleitzen ahalko zaie.

Bederatzigarrena- Dirulaguntzaren aurrerakina, ordainketa eta justifikazioa:

1. Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik,

baliabide nahikorik ez izatea behar bezala frogatzen duten entitateen kasuan, dirulaguntzaren ordainketa bakarra eta aurreratua eginen da, diruz lagundutako jarduera behin-behinekoz finantzatzeko. Horretarako, eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari erantsita, entitatearen edo elkartearen ordezkariak sinatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, jarduera egiteko baliabide nahikorik ez dagoela adieraziko duena.

2. Gainerako entitateei aldeztu ordainduko zaie emandako dirulaguntzaren % 60 adinako zenbatekoa. Emandako dirulaguntzaren zenbateko osora iritsi artekoa diruz lagundutako proiektua amaitutakoan ordainduko da, ordainketa bakarrean. Aldeztu aurretik, entitate onuradunak justifikatu egin beharko du egindako jarduera.

Dirulaguntzaren aldeztu aurretiko ordainketa deialdi hau ezabtearekin batera eginen da.

Dirulaguntza egiazki ordaintzeko, beharrezkoa izanen da entitateak aurkeztua izatea transferentzia-abonua eskatzeko agiria, diru-sarrera egin behar den banku-entitateak datuz behar bezala beteta.

3. Esku-hartzea amaitu eta gehienez ere ondoko hilaurretan aurkeztuko da justifikaziorako dokumentazioa, eta honako agiri hauek bilduko ditu:

- Entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinaturiko erantzukizunpeko adierazpena, justifikazio-txostena osatzen duten agirietan jasotako datuen egiazkotasunari buruzkoa.

- Esku-hartzearen oroitidazki teknikoak, dagozkion egiaztapen-iturriekin, hala behar denean.

- Oroitidazki ekonomikoa, non azalduko baita esku-hartzearen aurrekontuaren betearazpena, exekuzioan eginiko gastu guztiak xehakaturik eta adierazita zer jarduerari dagozkion eta nor den finantzatzailea.

- Nafarroako Parlamentuaren dirulaguntzaren kargura eginiko gastu eta ordainketa guztien ziurtagiriak. Gastuak frogatzeko, fakturak eta ordainagiriak aurkeztuko dira, edo gainerako frogagiri baliokideak, merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak direnak edo eraginkortasun administratiboa dutenak. Agiri guztiek eginbide-zigilua izango dute, eta bertan adieraziko da Nafarroako Parlamentuak finantzatu dituela jarduerak. Eginbideak jasoko ditu, gutxienez, "Nafarroako Parlamentuak finantzatua" legenda eta Nafarroako Parlamentuak emandako dirulaguntzaren kargura finantzatutako zenbatekoa edo ehunekoa.

- Nafarroako Parlamentuaren ez den finantzaketarekin eginiko gastuen kasuan, entitateak berak emandako ziurtagiri bat aurkeztuko da, fun-

ts pribatuen kasuan, edo zenbatekoa eta proiektua jasotzen dituen aldeko ebazpenaren kopia bestelako dirulaguntza publikoen kasuan.

- Berariazko adierazpena: ea proiektuak beste laguntza edo dirulaguntzarik jaso duen, eta, baiezkoan, jasotako zenbatekoen eta horien iturrien xehetasunak.

Aurkeztutako agirietan oinarrituta, balorazio-batzordeak egin den jardunari eta horren justifikazioari buruzko txosten bat bidaliko dio instrukzio-organoari. Txosten horri jarraikiz, instrukzio-organoak proposamena eginen dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, exekutaturiko ekintzaren justifikazioa onetsi dezan, kasua bada, justifikazioa onetsi eta ordainketa agin dezan, edo bestela itzulketa-espeditante bati ekitea proposa dezan, Dirulaguntzei buruzko Foru Legearen 35. artikulua ezarritakoaren arabera.

Hamargarrena- Dirulaguntzaren diren gastuak:

- Dirulaguntzaren diren gastuak jotzen dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zailtasun gabe erantzuteaz gain jarduera hura burutzeko ezarritako epearen barruan egiten direnak. Gastu dirulaguntzaren eskuratze-kostua ez da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

- Deialdi honi dagokionez, ez dira gastu dirulaguntzarriz joko inbertsio gastuetara bideratutako diru kopuruak, ez eta zeharkako kostuak edo kudeaketa kostuak ere.

Hamaikagarrena- Balorazio-irizpideak.

Eskaerak 0 eta 100 puntu bitarteko eskalan baloratuko dira, irizpide hauei jarraituz:

I. Esperientzia (30 puntu gehienez):

a) Azken lau urteetan administrazio publikoek finantzatuak izan diren garapenerako hezkuntza eta sentsibilizazioko proiektuak exekutatuak izan diren eskatzaileak izandako esperientzia baloratuko da. Proiektuaren kopurua eta diruz lagundutako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

- 1 - 4 proiektu bitarte: 2,5 puntu.

- 5 - 7 proiektu bitarte: 5 puntu.

- 8 - 10 proiektu bitarte: 8 puntu.

- 10 proiektu baino gehiago: 12 puntu.

Lortutako dirulaguntzen zenbatekoa:

- 0 - 8.000 euro bitarte: 2,5 puntu.

- 8.001 - 30.000 euro bitarte: 5 puntu.

- 30.001 - 80.000 euro bitarte: 8 puntu.

- 80.000 euro baino gehiago: 12 puntu.

Balorazioa egiteko, proiektu exekutatuak III. eranskina edatuz betez deklaratu beharko dira (eranskin horretan adierazitako informazioaz bestelakoak ez dira kontuan hartuko). Gainera, deklaraturako jarduketek puntuak izan ditzaten, haien frogagiriak helarazi beharko dira, haien ebazpenaren kopia edo dokumentu baliokidea atxikiz.

Bi apartatu horietan lorturiko puntuazioa 1,25ekin biderkatu ahalko da, baldin eta esku-hartzea Nafarroako Parlamentuak aurreko bi ekitaldietako edozeinetan finantzatua izan bazen. Horretarako, eskaera-inprimakian azaldu beharko dira labor ordura arte lorturiko emaitzak eta jarraitpenerako arrazoiak.

II. Proiektuaren kalitatea (55 puntu, gehienez):

a) Proiektua gauzatuko den egoeraren eta ingurunearen azterketa: (10 puntu, gehienez).

b) Kronograma (5 puntu gehienez):

c) Helburuaren, emaitzen eta jardueren koherentzia: (10 puntu, gehienez).

d) Adierazleak eta egiaztapen-iturriak: (10 puntu, gehienez).

e) Herritarrek parte hartzea eta boluntariora sustatzea: (5 puntu, gehienez).

f) Genero-ikuspegia jasotzea (10 puntu, gehienez).

Proiektua lagungarria da emakumeen eta haiek munduan duten kokalekuaren ikusgaitasunerako; gaitasunen sendotzea eta emakumeen autonomia sustatzen ditu.

g) Esku-hartzearen garapenean eragin dezaketen kanpoko arriskuen edo faktoreen analisisa (5 puntu, gehienez).

III. Aurrekontuaren deskribapena: (15 puntu, gehienez).

- Aurrekontua deialdian jasotakoari egokitzea: (5 puntu, gehienez).

- Gastu-beharren justifikazioa: Giza baliabideak, baliabide materialak... (10 puntu, gehienez).

Ez dira baietsi 50 puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskaerak.

Eskatutako dirulaguntza bera emanen da. Lehenetasun-ordena ezarriko da lortutako puntu kopuruaren arabera, eta dirulaguntzak esleituko dira harik eta aurrekontu-izendapenaren mugara iritsi arte. Prozedura horren arabera dirulaguntza lor dezakeen azken proiekturako eskatutako diru kopurua handiagoa bada haren finantzaketarako eskueran dagoen diru kopurua baino, dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 20. bis artikuluan ezartzen denari jarraituz, onuraduna premiatzea bere eskaera birformula dezan, konpromisoak eta baldintzak eman daitekeen dirulaguntzara doitzeko.

Hamabigarrena- Errekurtsoak:

Deialdi hau oinarri arautzaile hauen bidez eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoaren bidez arautzen da.

Deialdi honen aurka errekurtsio hauek jartzen ahalko dira:

- Aukerako berraztertze-errekurtsioa, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko arlo horretako salan, bi hilabeteko epean, deialdi hau argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuko aretoen erabilerari buruzko arauak aldatzea, ondoren aipatzen den moduan:

– 1. apartatua —Jarduera parlamentarioa eta instituzionala—, Baluarte aretorako aurreikusitako erabileraren arauari azken paragrafo bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“Era berean, lan-bilkura batean parte hartu du(t)en pertsonak edo pertsonak edo kolektiboek lan-bilkura bukatzen denean Baluarte aretoa erabiltzen ahalko dute prentsari adierazpenak egiteko, Legebiltzarreko zerbitzuei aurretiaz eskaera eginda, arau hauen 3. apartatuak xedatzen duen moduan, baldin eta horrek erabilera parlamentario edo instituzionala oztopatzen ez badu”.

– 1. apartatua —Jarduera parlamentarioa eta instituzionala— erabilera anitzeko aretorako aurreikusitako erabileraren arauari bigarren paragrafo bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“– Erabilera anitzeko aretoa prentsaurrekoak egiteko eta Legebiltzarreko Mahaiak antolatutako ekitaldiak, jardunaldiak, ikastaroak eta hitzaldiak

egiteko erabiliko da batik bat. Beste edozertarako erabili ahal izateko, Mahaiak baimena eman beharko du aurretiaz.

Aurretik eskatuta eta Mahaiak horretarako baimena emanda, erabilera anitzeko aretoa bestelako ekitaldi, jardunaldi, ikastaro eta hitzaldiak egiteko erabiltzen ahalko da, baldin eta aipaturiko jarduera horiek zerikusia badaukate Parlamentuko funtzio eta jarduerarekin, arauen 4. apartatua aurreikusitako instalazioak erabiltzeko baldintzei jarraikiz”.

– 4. apartatua —Instalazioak erabiltzeko baldintzak— azken paragrafo bat gehitzen zaio. Testu hau izanen du:

“Erabilera anitzeko aretoa beste batzuek antolaturiko ekitaldi, jardunaldi, ikastaro eta hitzaldiak egiteko lagapena Parlamentuaren jardueretarako ordutegiaren barruan eginen da eta erakundeari ez dio inolako gasturik ekarriko, salbu eta gaiaren interesa dela-eta Mahaiak berariazko baimena ematen badu”.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Izendapena

Bukatu da Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia, lehendakaritza honek 2021eko otsailaren 10ean emandako ebazpenaren bidez onetsi ondoren Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 2021eko 45. zenbakian eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 2021eko 27. zenbakian argitaratu zena otsailaren 26an, batean zein bestean.

Kalifikazio epaimahaiak egindako izendapen proposamena argitara eman da Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 2022ko 56. zenbakian eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren 2022ko 35. zenbakian, biak ala biak 2022ko martxoaren 18koak. Hortaz, deialdiko 8. oinarrian xedatutakoarekin bat etorriz, eta deialdiko 7.3 oinarrian adierazten diren agiriak aurkeztu dituztenez, bidezkoa da hautapen prozesua gainditu duten izangaietatik proposatu diren pertsonak izendatzea.

Aurreko guztia kontuan harturik, lehendakari-tza honek, dagozkion ahalmenak eta eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa. Carlos Ruiz Remírez, Miryam Sola Núñez eta Irantzu Landívar Roque Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko funtzionario izendatzea, auditoretzako teknikarien lanpostuetan aritzeko.

Bigarrena. Zehaztea ezen izendatutako izangaiak hilabeteko epean jabetu behar dutela lanpostuaz, izendapenaren jakinarazpenaren egune-tik kontaktzen hasita.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, eta interesdunei eta Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusiari jakinarazteko agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria:
Asunción Olaechea Estanga

